

6 / 07

Irizpena

MERKATARITZA JARDUERAREN
LEGEAREN BIGARREN
ALDARAZPENAREN

Lege aurreproiektuaren gainean

Bilbon, 2007ko abenduaren 14an



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía, 35-1. solairua
48009 Bilbo
www.cesvasco.es

Maketazioa eta fotomekanika: Argia Servicios Gráficos, S. L.

Inprenta: Gestingraf, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-1216-07

Irizpena

I AURREKARIAK

2007ko ekainaren 22an Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren idatzia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Idatzian Merkataritza Jardueraren Legearen bigarren aldarazpenaren lege aurreproiektuaren berri eman eta irizpena egiteko eskatzen ziguten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3 artikuluko 1.a.) atalean dioena betetzeko.

Berehala helarazi zitzaizkien dokumentuaren kopiak berehala Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei, egoki irizten zieten proposamen eta iritziak bidal zituzaten, beraiek esandakoak Batzorde Iraunkorrera zein zegokion Lan Batzordera bideratzeko, Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzordearen funtzionamendurako arautegian dioen bezala.

Ekonomi Garapenerako batzordeak 2007ko urriaren 26an eta azaroaren 28an egin zituen bileran, Irizpen Aurreproiektuaren proposamenak eztabaidatzeko. Azaroaren 28an Irizpen Proiektu hau onestea erabaki zen eta gaur 2007ko abenduaren 14an egin den Osoko Bilkuran aho batez onetsi da.

II EDUKIA

Kontsultapean jarritako Lege Aurreproiektuaren testuak zioen azalpena, 10 artikulua eta amaierako xedapena dauzka.

Zioen azalpena

Aurreproiektuaren atarikoak lau puntu dauzka.

Lehenean, hasteko, azaltzen da merkataritzak, gure esparruan, hiri biziak eta seguruak atontzen eta identifikatzen gaituen hiri eredia eratzen lagundu duela. Bigarren, berriz, Europako hiri eredia sustatu behar dela dio, *trinkoa* alferrikako joan-etorriak saihesten dituen, *konplexua*, bizitoki eta merkataritza eta zerbitzu

erabilpenak harmoniaz uztartzen dituen, eta *gizarte ikuspegitik kohesionatua*, herri-tarrak gogobetetzen dituen. Hirugarren, lurzoruaren erabilpenean iraunkortasuna bermatu behar duela dio eta, amaitzeko, helburua planteatzen du, saltoki handiak bizitokiak dauden lurzoruetan pilatu behar direlako apustua eginez.

Bigarren, 7/1994 legearen erreformari heltzeko une egokia dela dio, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 legea indarrean jartzeak udaletako hirigintza planak berrikusi edo moldatzeko aukera emango baitu.

Hirugarrenak erreforman dendetako ordutegien araubideari duela gutxi egin zaion aldaketa kontuan hartzen duela aipatzen du.

Eta laugarrenean azoka erakundeak eta merkataritza ekitaldien beste antolatzaile batzuen arteko bereizketa ezabatzen da, eta udalei Merkataritzari Begirako Programak onesteko aukera ematen zaie, programa horiek beren politikak Eusko Jaurlaritzaren organo eskudunek gai horretan hartzen dituzten erabakiekin uztartzeko balio diezaieten.

Xedapenak

Lehenengo artikulua azkeneko lerroaldea gehitzen dio 7/1994 Legearen 11. artikuluari, non salmentarako gainazala 150 m² edo gehiago duten saltokiek arautegiz ezartzen diren mugen pean egongo direla baitio.

Bigarren artikulua idazketa berria ematen dio 7/1994ko 13 artikuluari, saltokiak jartzeari buruzkoa baita. Berritasunik aipagarrienak hauek lirateke:

- Udalek hirigintza planeamenduetan merkataritza erabilpena berariazkotzat joko dutela dio, saltoki handietarako zer lurzoru erabil litekeen zehaztuz.
- Ez du merkataritza lizentziaren konturik aurreikusten. Baina hamargarren artikulua bidez eransten den Bigarren Xedapen Iragankorrak dioenez, saltoki handien jarduera ezarri, aldatu zein handitzeko merkataritza lizentzia beharko da, saltoki handiak ezarri, aldatu eta handitzeko indarreko legedian aurreikusten den bezala, udalek hirigintzako beren planeamenduak legearen 13. artikuluan jasotzen diren aurreikuspenetara moldatzen ez dituzten bitartean.
- Saltoki handia izateko behar den gainazala gehitzen da eta, hartara, gainazal eraikia gutxienez 700 m² izango beharko dute handitzat joko badituzte;
- Saltoki handiak ezartzeko dagokion legedia Ekonomi Jarduera eta Merkataritza Ekipamenduetarako lurzoruaren sorkuntza publikoko lurralde plan sektoriala izango da aurrerantzean.
- Hainbat irizpide ezartzen dira Udalei saltoki gainazal handiak ezartzea dagokien erako, eta iraunkortasuneko azterlan baten bidez justifikatzen direnean, irizpide horietako bi ez betetzeko aukera emango da.

Hirugarren artikulua idazketa berria ematen dio 7/1994 Legean Merkataritzako lehiaketan kalifikazio ofiziala emateko irizpideei buruzkoa den 33. artikuluari.

Laugarren artikulua lehiaketa horien antolatzaileei buruzko 7/1994 legearen 35 artikulua indargabetzen du, merkataritza lehiaketen "antolamendua" eta "egintza" legearen 331. artikulua aldaraziak baititu hizpide.

Bosgarren artikulua Merkataritzako Lehiaketen erregistro ofizialari buruzko 7/1994 Legearen 36.2 artikulua aldarazten du. Zehazki, lehenengo atala desagertzen da, erakunde antolatzaileak inskribatu behar zirenekoa.

Seigarren artikulua, aurreko aldarazpen horren ondorioz (erregistroaren lehenengo atala ezabatzea), 7/1994 Legearen 37. artikulua idazketa aldatzen du.

Zazpigarren artikulua azoka erakundeek araudira doitu barik jardutearen urraketak kentzen du, hots, 7/1994 7/1994 legearen 38. artikulua 1. lerroaldearen v letra

Zortzigarren artikulua, aurreko aldarazpenaren ondorioz, 7/1994 Legearen 40. artikulua idazketa aldatzen du eta, horrela, azoka erakundeek araudira doitu barik jardutea ez da urraketa larritzat hartzen.

Bederatzigarren artikulua idazketa berria ematen dio 7/1994 Legearen merkataritza egituren erreformari buruzko 50. artikuluari.

Hamargarren artikulua, Bigarren Xedapen Iragankorra gehitzen duenak, aipatzen du Udalek hirigintzako planeamenduak aurreikuspen horietara egokitzen ez dituzten bitartean, saltoki handien jarduera ezarri, aldatu zein handitzeko, salbuespenak salbuespen, merkataritza lizentzia beharko dela, saltoki handiak ezarri, aldatu eta handitzeko indarreko legedian aurreikusitako terminoetan.

Amaierako xedapenean dioenez, dekretua EHAA-n argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

III GOGOETA OROKORRAK

Merkataritza jardueraren 7/1994 legeak eta bere garapen arautegiak¹ EAren esparruan saltoki handien guneak ezartzeko baldintzen lehen arauak ekarri zuen.

Lege hura partzialki aldarazi zuen azaroaren 10eko 7/2000 Legeak, zeinen garapenean hauxe agindu baitzen:

- 58/2001 dekretua, azaroaren 28ko 244/2006 dekretuak partzialki aldarazia, non saltoki gune handiak ezarri, aldatu eta handitzeko baldintzak finkatzen baitira, eta
- Otsailaren 22ko 33/2005 Dekretua, non saltoki gune handietako denda lokalak ireki eta ixteko ordutegiak antolatzen dituzten arauak ematen baitira.

Irizpen honek hizpide duen lege aurreproiektuak, batetik, saltokiak ezartzeko baldintzak aldarazi gura ditu eta, hori, Europako Parlamentuaren 2006/123/CE eta Kontseiluaren barruko merkatuko zerbitzuen gaineko 2006ko abenduaren 12ko zu-

¹ 5/1998 dekretua, urtarrilaren 20koa, azaroaren 10eko 7/2000 legea aldarrikatzean indargabetua.

zentarauaren esparruan egin behar da eta, bestetik, merkataritzako lehiaketei buruzko zenbait aldarazi nahi ditu.

Merkataritza lehiaketei buruzko bigarren aldarazpen horri dagokionez, atarikoan ez dugu arau aldaketa justifikatu eta inspiratzen duen azalpenik aurkitu, eta arrazoitutako iritzia emango badugu argibide horiek eman beharko zaizkigu.

Saltokiak ezartzeko baldintzei buruzko lehenengo aldarazpenari dagokionez, Euskadiko EGABren ustez, atarikoan azaltzen diren arrazoiek ez dute "*saltoki handiak bizitokiak dauden lurzoruetan pilatu behar direlako apustuaren*" helburua justifikatzen.

Zioen azalpeneko argudio lerroa *hiri eredu propioa garatzearen* komenigarritasunaren inguruan ari da; *lurzoruaren erabilpenaren iraunkortasuna bermatu* behar dela ere badio. Behar dena, zehazki, hauxe da:

— Sustatu behar da *hiri trinkoa* alferrikako joan-etorriak saihesten dituen, *konplexua*, bizitoki eta merkataritza eta zerbitzu erabilpenak harmoniaz uztartzen dituen, eta *gizarte ikuspegitik kohesionatua*, herritarrak gogobetetzen dituen, erosi eta hornitzeko beharrak asetzen dizkiena, desplazatzeko aukera edo modurik izan zein ez.

Bestalde, baiesten da merkataritzak, gure esparruan, hiri bizi eta seguruak moldatzen lagundu duela, identifikatzen gaituen hiri eredia eratuz.

— Lurzoruaren erabilpenaren iraunkortasuna bermatzea, eta lege aurreproiektuak Europako Lurralde Estrategia aipatzen du, baita lurzoruaren legeak ere (EAEko 2/2006 eta estatuko 8/2007), lehenak hiri hedapenaren kontrola jasotzen du, bigarrenak, berriz, iraunkortasun printzipioa, lurzoru baliabide naturalaren kontsumoari heltzean. Aipatzen du, ondoren, 4/1997 Legearen erreformari ekiteko une aproposa dela, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legea indarrean jartzeak udaletako hirigintza planak berrikusi edo egokitzea ekarriko baitu.

Batzorde hau bat dator planteatzen den hiri ereduarekin, baina zalantzak dauzkagu "*konplexua*" hitzaren bizitoki eta merkataritza eta zerbitzu jarduerak harmoniaz uztartzea adierazteko egokitasunaz, hitzak berak, batzuentzat, zentzu peioratiboa izan dezakeelako. "*Funtzio askotakoa*" esatea hobeto legoke, gure ustez.

Euskadiko EGABren iritziz, gure hiri eta herrien bizitasunari eustea ere funtsezkoa da, ekonomi eta gizarte topaketa gune gisa jokatzen duten papera mantentzea eta, horregatik, deigarria egiten zaigu merkataritza jardueraren 7/1994 legearen erreforman bizitokietarako lurzoruetan saltoki handi gehiago egon dadin erraztea planteatzea eta denda txiki eta ertainei buruz, ordea, inolako helburu edo neurririk ez jasotzea, identifikatzen gaituen hiri eredia eratzeko denda txiki eta ertainak oinarri-oinarrizkoak direnean.

Amaitzeko, Euskadiko EGABri begitantzen zaio arautegiaren erreformaren motibazioak eta bere arauzko garapena ez direla ondo doitzen.

Aurreko guztiarekin lotuz, merkataritza zelan dagoen eta zelan banatzen den azterlanaren hutsunea sentitzen dugu, are gehiago martxoaren 27ko 58/2001 Dekretuak eta azaroaren 28ko 244/2006 Dekretuak (saltokiak ezarri, aldatu eta handitze-ari buruzkoak biak), saltoki gune handien batzordeak, besteak beste, horrelako txostenak egin behar zituztela zioten arren. Euskadiko EGABk uste du interesgarria litzatekeela merkataritza sektorearen puntu sendo eta ahulen, ahultasun, mehatxu, sendotasun eta aukeren analisisa (DAFO) ondo legokeela, helburua, hau da, *hiri trinko, funtzio askotako eta gizarte ikuspegitik kohesionatua* lortu lortzera bideratuko gaituzten neurrien multzoa zehaztuko badugu.

IV ONDORIOAK

Euskadiko EGABk beharrezko ikusten du Merkataritza Jardueraren Legearen bigarren aldarazpenaren lege aurreproiektua birplanteatzea, irizpen honetan egindako oharren haritik.

Bilbon, 2007ko abenduaren 14ean

O.E. Lehendakaria
Antxon Lafont Mendizabal

Idazkari Nagusia
Javier Muñecas Herreras

Trizpēna

6/07

6/07

Dictamen